Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

143

355/2010 DEKRETUA, abenduaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari San Mamés Barria SL sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

San Mamés Barria SL sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2010eko abenduaren 10ean egindako bileran, Bazkideen Batzar Orokorrari zazpi milioi (7.000.000) euroko kapital-gehikuntza proposatzea erabaki zuen, euro baten balio nominaleko 7.000.000 partaidetza sozial, zatiezin eta metakor berriren jaulkipena eginez, gaur egunekoek dituzten eskubide politiko eta ekonomiko berberekin.

San Mamés Barria SL sozietateak, gaur egun, 23.866.103 euroko kapital soziala du. Hortik, Athletic Club-ek % 78,78ko sozietate-partaidetza du, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilbao Bizkaia Kutxak (Kartera 2 SL-ren bidez), bakoitzak % 8,39ko partaidetza dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak 4,19ko partaidetza du eta Bilboko Udalak kapital sozialaren % 0,25a du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak orain jaulkitakoetatik 4.000.000 partaidetza hartuko ditu, 4.000.000 euroko ordainketa eginez. Gainerako partaidetza berriak Bizkaiko Foru Aldundiak hartuko ditu, erabaki den kapital-gehikuntzan gainerako bazkideek euren lehentasun-eskubideei uko formala eta adierazia egin ondoren, kapital-sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 304. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

143

DECRETO 355/2010, de 28 de diciembre, por el que se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la toma de participación en la ampliación de capital de la sociedad San Mamés Barria, S.L.

El Consejo de Administración de San Mamés Barria, S.L. ha acordado, en su reunión de 10 de diciembre de 2010, proponer a la Junta General de Socios un aumento de capital por importe de siete millones (7.000.000) de euros, mediante la emisión de 7.000.000 de nuevas participaciones sociales, indivisibles y acumulables, de un euro de valor nominal cada una de ellas, con los mismos derechos políticos y económicos que las actualmente existentes.

Actualmente, San Mamés Barria, S.L., con 23.866.103 euros de capital social, está participada por el Athletic Club, con un 78,78% de las participaciones sociales, por la Diputación Foral de Bizkaia y Bilbao Bizkaia Kutxa (a través de Kartera 2, S.L.), cada una con un 8,39% de participación, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que detenta el 4,19% de las participaciones, y el Ayuntamiento de Bilbao, titular del 0,25% del capital social.

La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco asumirá 4.000.000 participaciones de las nuevamente emitidas, con el desembolso de 4.000.000 euros. El resto de las nuevas participaciones serán asumidas y desembolsadas por la Diputación Foral de Bizkaia, previa renuncia formal y expresa del resto de socios a sus derechos de preferencia en relación con el aumento de capital acordado, tal y como se regula en el artículo 304 Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital.

El artículo 110.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, dispone que la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por decreto, a propuesta conjunta del consejero o consejera competente en materia de patrimonio y del consejero o consejera del departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El decreto será publicado en el

Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du indarra.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak nahitaez adieraziko ditu, non eta doako eskuratzea ez den, sozietatearen xedea eta EAEk, zuzenean nahiz zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen sozietatean.

San Mamés Barria SL sozietatearen helburu soziala kirol-estadio berri bat sustatzea, eraikitzea eta ustiatzea da, sozietateak Bilbon dituen lurretan. Kirol jarduerak ez ezik, estadio berriaren ustiapenak hartuko ditu, baita ere, legez onartzen diren estadioaren erabilerei begira egin litezkeen bestelako jarduera osagarriak ere, alegia, sozietateak zuzenean egindako jarduerak edo beste batzuen bitartez egindakoak.

Behin Administrazio honek partaidetza sozialak eskuratzen dituenean, San Mamés Barria SL sozietatean duen partaidetza % 16,20 izango da.

Sozietateko kapitala handitzeak berekin dakar estatu-aldaketa, eta beraz, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetzen ordezkariari baimena ematea, aldaketa horri dagokionez bere adostasuna adierazteko, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari bai San Mamés SL sozietatearen kapital sozialaren gehikuntzan parte hartzeko, lau milioi (4.000.000) euro balio duten lau milioi partaidetzaren bitartez, bai ordainketa hori egiteko ere, zeina kapitala gehitzeko Erabakian Akziodunen Batzar Nagusiak adierazitakoaren arabera egingo baita. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetza % 16,20koa izango da.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetzen ordezkariari baimena ematea San Mamés barria SL sozietatearen estatutuetako 5. artikuluaren aldaketa onartzeko.

Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

El decreto que autorice la adquisición de valores representativos de capital, salvo que se trate de adquisición a título gratuito, indicará necesariamente el objeto social y el porcentaje de participación, directa o indirecta, que tendrá la Comunidad Autónoma en la sociedad.

El objeto social de la sociedad San Mamés Barria, S.L. es la promoción, construcción y explotación de un nuevo estadio deportivo en los terrenos de los que sea titular la sociedad en Bilbao. La explotación del nuevo estadio incluirá tanto el desarrollo de actividades deportivas, como cuantas actividades complementarias pudieran realizarse en el estadio en atención a los usos aprobados legalmente en relación con el mismo, actividades que podrá realizar la sociedad, ya directamente, ya a través de terceros.

Cuando se haya hecho efectiva la adquisición de participaciones sociales por parte de esta Administración, la participación de ésta en San Mamés Barria, S.L. será del 16,20%.

Puesto que el aumento de capital social implica la necesaria modificación de los estatutos sociales, se precisa también autorizar al representante de las participaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para que manifieste su conformidad a esta modificación, tal y como establece el artículo 111 de Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda y de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 28 de diciembre de 2010,

DISPONGO:

Artículo 1.– Autorizar la asunción de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el aumento de capital social de San Mamés Barria, S.L., mediante la adquisición de cuatro millones de participaciones sociales por un valor de cuatro millones (4.000.000) de euros y su desembolso, que tendrá lugar en la forma señalada por la Junta General de Accionistas en el correspondiente Acuerdo de Ampliación de Capital. La participación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco será del 16,20%.

Artículo 2.– Autorizar la prestación de consentimiento por parte del representante de las participaciones de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la modificación del artículo 5 de los estatutos sociales de San Mamés Barria, S.L.

3. artikulua.– Ahalmena ematea Ondare eta Kontratazioko zuzendariari, aurreko artikuluetan xedatutakoa betetzeko behar diren jarduketak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 28an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Artículo 3.– Facultar al Director de Patrimonio y Contratación para el ejercicio de cuantas actuaciones sean necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en los artículos precedentes.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.